

## MEMORIA

### ARAUTUTAKO APARKALEKUEN UDAL ZERBITZUAREN ORDENANTZA

ARAU ONARTZEKO PROZEDURAREN AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN TRAMITEA.

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2915 Legearen 133 artikuluan ezarritakoaren arabera, egitasmoak eta aurre-egitasmoak eta araudiak egin aurretik, kontsulta publikoa egin beharra dago, hain zuzen ere etorkizuneko arauak agian eragingo dien pertsonen eta elkarte esanguratsuenen artean iritzia jasotzeko; beraz, hori betetze aldera, aldez aurreko kontsulta egin bedi *araututako aparkalekuen udal zerbitzuaren ordenantza..*

|   |  |
|---|--|
| <p>Arauren aurrekariak</p>                        | <p>Arau honek ez du aurrekaririk, Urretxuko udalerriko trafikoko, ibilgailu motordunen zirkulazioko eta bide-segurtasuneko arau-haustek arautzen dituen ordenantza orokorraren 9.7 artikuluan egiten den aipamenean bat izan ezik.</p> <p>Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateginaren 7 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriri dagokio aparkaldi mugatuko neurriak ezartzea, aparkalekuen txandakatzea bermatzeko.</p> |
| <p>Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak</p> | <p>Labeaga kaleari merkataritza-ordutegian zerbitzua ematea ahalbidetzen duen eremu batean aparkatzeko eskaria.</p> <p>Txandakatze egokia ahalbidetzen ez duten ibilgailu batzuk etengabe aparkatzea saihestea.</p>  |
| <p>Hori onartzeko beharra eta aukera</p>          | <p>Aparkatzeko eskaerari behar bezala erantzutea, hiri-kalitatearen eta irisgarritasunaren helburu orokorren barruan, ordenantza hau egokituz jotzeko arrazoiak dira.</p>  |

|  |  |
|--|--|
| Arauaren helburuak                                       | Kalerrotako merkataritza-gunean ibilgailuak aparkatzen eta txandakatzen laguntzea, eta, horrela, hirigunean erosketak egitera hurbiltzen diren pertsonentzako aparkalekuak izatea.                                       |
| Aukerako soluzio arautzaile eta ez arautzaile posibleak. | Aukerako soluzioa ordenantzarik ez egitea izango litzateke. Hala ere, Kalerrota inguruan aparkatzea hobetu nahi denez, komeni da hura egitea eta modu uniformearen eta eraginkortasunez aplikatzen dela ziurtatzea.<br>. |